

barriek

HURRENGO ERAKUSKETA

Amaia Molinet

2026ko ekainak 23 - abuztuak 30

2026ko apirilak 14 - ekainak 21

Mar de Dios

ORDUTEGIA

Asteartetik larunbatera 11:00 - 15:00 / 16:00 - 20:00

Igande eta jai egunetan 11:00 - 15:00

Astelehenetan itxita

Iparragirre 21

48009 Bilbao

T. +34 94 406 85 32

salarekalde.bizkaia.eus

salarekalde@bizkaia.eus

@rekaldearetoa

EUSKARA

Mar de Dios

Mar de Dios (Barakaldo, 1992) Artean graduatua da (EHU), eta Arte eta Sorkuntzako Ikerketa Masterra (Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea) eta Zeramikako Masterra (EHU) ditu eginda.

Bere azken erakusketen artean hauek daude: *Lurraren arteak* erakusketa kolektiboa, Guggenheim, Bilbo (2025); *Urezko ispilu eta loreak*, Montehermoso, Gasteiz (2025); *Kore Carreras Múgica* galeria (2024); Filet Spacen egindako erakusketa, Londres, (Natalia Suárezekin batera, 2023); *Batzuk*, Tabakalera, Donostia (2022); *Kata*, Aldama Fabre, Bilbo (2021); eta *Open to Art* talde-erakusketa, Milan (2019). Besteak beste, Milango Salone del Mobile azokan eta Lisboako eta Madrilgo ARCO azoketan parte hartu du, Carreras Múgica galeriarekin.

2023an, *Home, Casa, Hasierra* liburua argitaratu zuen, Peio Aguirre eta COOP argitaletxearekin lankidetzan, Peio Aguirre, Pilar Blanco eta Estrella de Diegoren testuekin.

2025ean, Bilboko Arte Ederren Museoaren, Artium Museoaren eta Tabakaleraren Bilduma Partekatua erosi zuen haren lana.

Egoiliarra izan da Portugalgo IDPool, Vista Alegre (2018) eta Yokohamako Koganecho Artist Residency (Japonia, 2023) programetan.

Rekalde Aretokoak MAR DE DIOSen erakusketa aurkezten du, barriek programa barruan. Programa horrek ikusgai jartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren arte plastiko eta ikusmen-artearen bekez gozatu duten artisten aukeraketa bat.

Erakusketa honek azken bost urteetan egin ditudan lanetako batzuk erakusten ditu. Aldi horretan, buztina baizik ez dut erabili laneko material gisa. 2021etik 2026ra arte egindako piezak biltzen dira, eta neuk aukeratu ditut, nolabait, niretzat *afektibitate* terminoari dagozkionak.

Afektua izan da azken hamarkada erdi honetan nire lana gidatu duen irizpidea. Aldi berean, ulertzen dut leku horretatik hurbildu behar dudala artera, haren edozein adierazpena: interpelatzen nauenaren eragina jasoz, gorputza aurretik jarritz eta adimena atzean utziz, arrazionalak esku hartu eta hitzezko iritzia eta etiketetan diseinatzen aurretik.

Zeramikazko gorputz bat beste batean bermatzen denean, sortzen den afektibitate-printzipioa esku bat beste baten gainean pausatzen denean sortzen denaren parekoa da. Keinu horrek erreakzio batzuk sortuko ditu, baina ez dira nahitaz mugimendu bihurtuko: gorputz horrek oreka bat negoziatuko du bere aurkakoarekin, edo bere pisua erortzen utziko du haren gainera. Harreman horretan tentsioak, bermeak eta leku-aldaketak aktibatzen dira, eta horiek, berez, afektibitatearen hizkuntza osatzen dute.

Hori da *Lucas* lanaren kasua. Angel Garrazaren 2000. urteko pieza hori sartu dut erakusketa honetan, Arte Ederretako fakultatean izan nuen irakaslearekiko afektuak ere gidatuta. Elkarrizketan dauden bi partez osatutako obra hori aukeratu dut eta erlazioan jarri dut nire lanarekin. Horrela, afektibitate-printzipio hori zabaldu nahi dut areto osora: espazio horretan, formak aldi berean existitzeaz gain, elkarri eragiten diote. Harreman sentikorren sare gisa eratu nahi dut erakusketa, pieza askok, autonomoak izan beharrean, besteekiko kontaktuan edo harremanean aurkitzen baitute zentzua.

Bestalde, Rekalde Aretotik, kalean gora 450 metro eskaseko lerro zuzen bat marraztuz, lakio ikusezin bat eratzen da. Lakio hori botatzen dut obra goiztiarretatik 2025aren amaieran sortu nuen eta une honetan Guggenheim museoa dagoen azken seriea*.

Hurbil dauden bi espazio horiek denboran bat egin izanak -espazio batek nire lehen lanetako batzuk hartuz, eta besteak, berriz, berrienak- aukera eman dit bidean geldialdi bat egiteko, eta bost urte hauetan gertatutakoari erreparatzeko. Lanean aritu bitartean ikusezina, isila eta hautemanezina izan zen bilakaera hautematen dut. Orain, kokapen bikoitz horri esker, panoramika gisa agertzen da, eta hitz egiten dit jarraitutasunaz eta agortzen ez den interesaz. Eta prozesu osoa zeharkatzen duen afektua.

Mar de Dios

*Guggenheim Bilbao Museoko *Lurraren arteak* erakusketa kolektiboa (Manuel Cirauquik komisariatua) 2025eko abenduaren 5ean inauguratu zen, eta 2026ko maiatzaren 3ra arte egongo da ikusgai, beraz, hiru astez Rekalde Aretoko erakusketarekin batera egongo da.